



ABANDOKO
SAN BIZENTE MARTIRIAREN
PARROKIA

PARROQUIA
DE SAN VICENTE MÁRTIR
DE ABANDO

Done Bikendi plaza 3. 48001 Bilbao (Bizkaia)
T. 94 423 12 96
parroquia@sanvicentemartirdeabando.org

EBANJELIOA: BEHAR DUGUN BERRIA

“Aitak ni bidali nauen bezala, nik zuek bidaltzen zaituztet”

2022ko ekainaren 5a
Mendekostea (C)

Joan 20, 19-23.

Asteko lehen egun hartan bertan, arratsean, ikasleak etxe batean bildurik zeuden; juduagintarien beldurrez, ateak itxirik zeuzkaten. Sartu zen Jesus eta, erdian jarririk, agurtu zituen esanez: “Bakea zuei”. Gero, eskuak eta saihetsa* erakutsi zizkien. Pozez bete ziren ikasleak Jauna ikustean.

Jesusek berriro esan zien: “Bakea zuei. Aitak ni bidali nauen bezala, nik zuek bidaltzen zaituztet”. Eta haien gainera arnasa botaz, esan zien: “Hartzazue Espiritu Santua. Zuek bekatuak barkatzen dizkiezuenei barkatu egingo dizkie Jainkoak ere; zuek barkamena ukatzen diezuenei, ukatu egingo die”.

“Jesusek bere Elizari emon deitsun doai onena Espiritu Santua da.
Au da bene benetan Jesusen bistueraren salbamen fruitu nagusia”

SALBAZIO PREMIAN

Jose Antonio Pagola

Elizak ez du Jainkoaren Espiritu Santuaren jabetzarik. Espiritu Santua ez da erlijioena bakarrik. Espiritua mundu osora jaitsi dadin eskatu behar dugu, hain handia baitu salbazio-premia.

Zatoz, Jainkoaren Espiritu kreatzailea. Zure mundu honetan ez da bakerik. Zure seme-alabak elkar hiltzen ari dira, era itsu eta ankerrean. Ez dakigu geure liskarrak konpontzen, armen indar suntsitzailera jo gabe. Ohitu egin gara gerlak odoldutako munduan bizitzen. Iratzar ezazu gugan gizaki orekiko begirunea. Egin gaitzazu bake-eraikitzaile. Ez gaitzazu utzi gaizkiaren boterepean.

Zatoz, Jainkoaren Espiritu askatzailea. Zure seme-alabetarik asko diruaren esklabo bizi da. Gizatasun handiagoko mundu baterantz bide egitea eragozten digun sistema batek harrapatu. Boteretsuak gero eta aberatsago dira; ahulak gero eta pobregoko. Eragin ezazu gugan mundu zuzenago baten alde jokatzeko indarra. Egin gaitzazu erantzuleago eta solidarioago. Ez gaitzazu utzi geure egoismoaren atzaparren pean.

Zatoz, Jainkoaren Espiritu berritzailea. Gizadia hautsia dago eta zatikatua. Zure seme-alabetako gutxiengo bat, gero eta gizatasun txikiagoko bihurtzen gaituen ongizateaz ari gara gozaten. Gehiengo handi bat goseak hiltzen ari da, miseriaz eta elikatze-eskasiak. Gure artean hazten ari da parekotasun-eza eta baztertze soziala. Iratzar ezazu gugan zuzenaren alde jokatzeko duen errukia. Irakatsiezaguz beti azkenekoak defenditzen. Eziezaguz utzi bizitzen bihotz gaixo batekin.

Zatoz, Jainkoaren Espiritu kontsolatzailea. Zure seme-alabetarik asko bizi da maitasuna, sutondoa edo adiskidetasuna zer den ezagutu gabe. Beste batzuk hor dabilta galdurik eta esperantzarik gabe. Ez dakite zer den bizitza duin bat, soilik ziurtasun-eza, ikara edo depresioa bizi dute. Berrindartu ezazu gugan sufrimendua dutenekiko ardura. Irakatsiezaguz bakartuago bizi direnengandik hurbilago bizitzen. Senda gaitzazu axola-faltatik.

Zatoz, Jainkoaren Espiritu ona. Zure seme-alabetarik askok ez du ezagutzen ez zure maitasuna, ez zure errukia. Zugandik urrunduz egin dira, zure beldur direlako. Gure gazteek ez dakite jada zurekin hitz egiten. Zure izena ezabatzen ari da jendearen bihotzean. Iratzar itzazu gugan zurekiko fedea eta uste osoa. Egin gaitzazu zure Berri Onaren eroale. Ez gaitzazu utzi umezurtz.

Zatoz, Jainkoaren Espiritu bizitzailea. Zure seme-alabok ez dakigu bizia zaintzen. Ez dakigu aurrera egiten gauzak suntsitu gabe; ez dakigu hazten gauzak pilatu gabe. Zure mundu hau gero eta segurtasun gutxiagoko, gero eta arriskuagoko bihurtzen ari gara. Jende askorengandik handituz doa ikara, eta itzaltzen ari da esperantza. Ez dakigu norantz goazen. Isur ezazu gu baita zure hats kreatzailea. Egizu jo dezagula bizitza sanoago baterantz. Ez gaitzazu utzi bakarrik. Salba gaitzazu!